# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
## JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## 3942

*158/2012 DEKRETUA, abuztuaren 21ekoa, Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa izeneko sozietate anonimoak kudeatutako nekazaritzako eta nabigazio eta arrantzako prestakuntza-zerbitzuko baliabideak uzten dituena Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren nahiz Justizia eta Herri Administrazioa Sailaren esku.*

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari nekazaritzako eta nabigazio eta arrantzako prestakuntzaren alorrean zegozkion eskumenak berrantolatu ditu Lehendakariaren otsailaren 24ko 5/2012 Dekretuak. Dekretu horren bidez, hirugarrenekoz aldatu da maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta jardun-arloak finkatzen dituena.

Alde batetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskumen-eremutik kanpo utzi da nekazaritzaren, nabigazioaren eta arrantzaren alorreko prestakuntza, hau da, Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuko 14. artikuluko 1. paragrafoko ñ) idatzi-zatian araututakoa. Idatzi-zati horretan bertan, bestetik, funtzio berri bat eta jarduera-eremu berria gehitu dira: nekazaritzako eta nabigazio eta arrantzako gaikuntza profesionala bultzatzea.

Maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren hirugarren aldaketa horren bitartez, zurtz egoteari utziko dio nekazaritzako eta nabigazio eta arrantzako prestakuntzaren eskumenak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila izango baita haren titular Dekretu horretako 7.1.a) idatzi-zatiaren hedapenez.

Otsailaren 24ko 5/2012 Dekretuko azalpenetan xedatutakoaren arabera, «nekazaritzako eta nabigazio eta arrantzako prestakuntza» berez sartzen da 7. artikuluko 1. paragrafoko a) idatzi-zatian. Idatzi-zati horretan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari esleitu zaizkio «Autonomia Estatutuan ezartzen diren eskumenak, bai erregimen orokorrekoak bai eta erregimen berezikoak ere, etapak eta mailak barne direlarik. Sail horri dagozkio, baita ere, goi mailako hezkuntza eta bizitzan barrena kualifikazioak eskuratu edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak».

Lanbide Heziketako sistema integratua osatzeko beharra dagoela adierazi da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak nahiz Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak biek batera egindako txostenean. Adierazi da, baita ere, sistema hori osatu ahal izateko, nekazaritza eta nabigazio eta arrantzako ikastetxeak Lanbide Heziketako ikastetxe integratu bihurtu behar direla. Horretarako egin da, hain zuzen ere, lehen aipatu dugun aldaketa hori. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, sektore publikoaren oinarrietako bat da –eta izan behar da– Lanbide Hezkuntza, Jaurlaritzak uste baitu Hezkuntza eta Prestakuntza zaintzeko bermerik onena hezkuntza-sistema publikoa dela. Sailetatik haraindi doa Lanbide Heziketaren ikuspegi hori.

Otsailaren 24ko 5/2012 Dekretuaren ondorioz, jarduera-eremua eta funtzioak zuzenean galdu ditu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak; eta horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eman zaizkio. Dekretu horren azalpenetan adierazi den moduan, Jaurlaritzaren eginkizun politiko eta administratiboek bere horretan jarrai dezatela bermatuko da, inolako etenik gabe eta, gainera, Administrazioak orain arte izan duen antolakuntza eta dekretu honen bidez onartutakoa biak moldatu nahi dira.

Kudeaketa-eredua edo -modua aldatuko da, eta Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoak kudeatutako zerbitzua askatuko da automatikoki, halaxe xedatu baita honako hiru Dekretu hauetan: ekainaren 24ko 154/1997 Dekretuan; azaroaren 28ko 249/2006 Dekretuan; eta maiatzaren 3ko 85/2011 Dekretuan. Hizpide dugun zerbitzua, bidenabar, Arkauteko Fraisoroko eta Derioko nekazaritza-ikastetxeetan nahiz Pasaiako eta Bermeoko nabigazio- eta arrantza-ikastetxeetan eskaini da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak nekazaritzako eta nabigazio nahiz arrantzako prestakuntzaren zerbitzuko ardura bere gain hartu ondoren, Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoaren irakasleak zerbitzu haren barruan sartuko dira. Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoaren ikastetxeetan diharduten langileetatik irakasle ez diren horiek, bestetik, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren barruan sartuko dira. Hori egin ahal izateko, edonola ere, lanpostu-zerrendak aldatu beharko dira; halaxe xedatu baita Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluan.

Bi aldeek bermatu nahi dute, baita ere, orain artean Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoaren ikastetxeetan eskaintzen ziren zerbitzu berberak eskainiko direla, aurrerantzean ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe berrietan.

Ondorioz, Ikerketa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren, Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren nahiz Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Eskualdatutako gaiari buruz.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartuko du Nekazaritzako eta nabigazio nahiz arrantzako prestakuntza-zerbitzua kudeatzeko ardura. Arkauteko, Fraisoroko eta Derioko nekazaritza-ikastetxeetan nahiz Pasaiako eta Bermeoko nabigazio- eta arrantza-ikastetxeetan eskaintzen da aipatu prestakuntza-zerbitzu hori.

2.– Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langile bihurtuko dira Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoko langileak baldin eta, indarrean diren lan-alorreko arauetan xedatutako baldintzak betez, nekazaritzako eta nabigazio nahiz arrantzako prestakuntza-zerbitzuan lanean ari badira Administrazioko langile bihurtzeko unean.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikiko zaizkio 1. artikuluan aipatutako ikastetxeetako langile guztiak; irakasleak nahiz irakasle ez direnak. Langile horien zerrendak I. eta II. eranskinetan jaso dira. 2012ko uztailaren 20an, hitzarmen bat adostu zen Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoko langileen ordezkariekin; eta bertan jasotako lan-baldintzak izango dituzte Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera aldatutako langileek.

2. artikulua.– Lan-legepeko irakasleei buruz.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren barruan sartuko dira Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoaren lan-legepeko irakasleetatik nekazaritzako eta nabigazio nahiz arrantzako prestakuntza-zerbitzura lotutako horiek. Langile horien zerrenda I. eranskinean jaso da.

Kontratu finkoa duten irakasleen datuez gain, I. eranskinean jaso dira, baita ere, ordezkotza-kontratua izan arren arestian aipatutako langile finkoen lanpostuan aritzen diren irakasleen datuak. Egungo baldintzak izaten jarraituko dute ordezkotza-kontratudunek, harik eta langile finkoak lanpostura itzuli arte.

Indarrean jarraituko dute, baita ere, lanpostua arauz estali arte egindako aldi baterako lan-kontratuek.

Horrez gain, aldi baterako ezintasun-egoerak estaltzeko asmoz edota lanaldi-laburtzeak metatu izanagatik egindako ordezkotza-kontratuek indarrean jarraituko dute, harik eta horiek sortzeko arrazoia konpondu arte.

2.– Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoak orain artean eskaini izan dituen ikasketak ematen jarraitzeko asmoz, zenbait lanpostu sortuko dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan. Horrela, hitzarmen honen xede den eskualdatzea gauzatu ondoren, aipatu lanpostu horien zerrendan ageri diren lanpostuetara atxikiko dira goiko idatzl-zatian aipatutako langileak, langileen kudeaketako zuzendariaren ebazpen bidez.

3.– Orain arteko baldintza beretan jarrai dezakete lanean, aurrerantzean ere, barnetegiko arduradun diren irakasleek.

4.– Orain arte Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoaren ikastetxeetan eskaini izan diren zerbitzu berberak eskaintzen jarraituko dira, aurrerantzean ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe berrietan. Horrela, aurrerantzean ere lanerako lanbide-prestakuntzako programak (etengabeko prestakuntza eta prestakuntza trinkoa) nahiz ekintzailetza-programak garatzen jarrai dezakete aipatu ikastetxeek, bai nekazaritzako prestakuntzaren nahiz landa-garapenaren alorrean, bai eta nabigazio nahiz arrantzako prestakuntzaren alorrean ere.

Beraz, gaur egun aipatu zerbitzu horiek eskaintzen dituzten irakasleek aurrerantzean ere aurreikusitako programak gauza ditzaten, lankidetza-hitzarmenak izenpetu ditzakete Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, eta Gobernu Kontseiluak; gaiari buruz hausnarketa egin ondoren, betiere.

3. artikulua.– Irakasle ez diren langileei buruz.

1.– Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoko langileetatik irakasle ez diren horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera atxikiko dira baldin eta, indarrean diren lan-alorreko arauetan xedatutako baldintzak betez, nekazaritzako eta nabigazio nahiz arrantzako prestakuntza-zerbitzuan lanean ari badira Sail horretako langile bihurtzeko unean. II. eranskinean jaso dugu langile horien zerrenda.

2.– Langileen Estatutuetako 44. artikuluan xedatutakoa betez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila subrogatuko da hizpide ditugun langile finko nahiz aldi baterako langileen lan-kontratuetan, laneko eskubide nahiz betebeharretan, eta gizarte-segurantzan. Subrogatzean, beraz, Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoko langileen ordezkariekin 2012ko abuztuaren 10ean egindako hitzarmenean aurreikusitako baldintzak beteko dira.

3.– Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileetatik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera atxikitako horientzat gordetako lanpostuen zerrendan argitaratutako lanpostuetara atxikiko dira irakasle ez diren langileak. Hori dela eta, dagozkion lanpostu-zerrendak aldatu beharko

dira, halaxe xedatu baita Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 18.1 artikuluan.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio irakasle ez diren langileen buruzagi izatea, ohiko administrazio- eta kudeaketa-ekintzak gauzatzea eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa betez, dagozkion gainerako beste funtzio guztiak betetzea.

5.– Subrogatutako langile guztien espedienteen egiaztatutako kopia bat bidaliko zaio Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari. Bidali beharko zaizkio, baita ere, 2012ko urtarriletik irailera eskuratutako kopuruei buruzko hartzekoen egiaztagiriak, 2012ko urtarriletik abuztura eskuratutako kopuruak, eta 2012ko irailetik abendura aurreikusitako kopuruak.

4. artikulua.– Ondasun higigarri eta higiezinei buruz.

Euskadiko Ondarearen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuko 59.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako ondasun eta eskubide hauek dagozkio nekazaritzako eta nabigazio nahiz arrantzako prestakuntza-zerbitzuari.

– Ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubideak. III. eranskina.

– Ondasun higigarriak eta abereak. IV. eranskina.

5. artikulua.– Ikastetxeei buruz.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esku utziko dira jarraian aipatuko ditugun ikastetxeak. Ikastetxe horien izen orokorrak eta espezifikoak Ikastetxeen Erregistrotik hartu ditugu. Hona hemen:

– Itsasmendikoi Arkaute Bigarren Hezkuntzako Institutua.

– Itsasmendikoi Derio Bigarren Hezkuntzako Institutua.

– Itsasmendikoi Fraisoro Bigarren Hezkuntzako Institutua.

– Itsasmendikoi Pasaia Bigarren Hezkuntzako Institutua.

– Nautico Pesquera Vicealmirante Fontán Lobe Bigarren Hezkuntzako Institutua.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere aldetik, egoki diren administrazio-izapideak egingo ditu aipatu izen horiek indarreko arauetara egokitzeko. Horrez gain, hizpide ditugun ikastetxe horiei buruz Ikastetxeen Erregistroan jasotako datuak eguneratuko dira.

3.– Indarreko arauetan adierazitako autonomia izango dute aipatu ikastetxe publikoek 2012-2013. ikasturtetik aurrera alor ekonomikoa eta finantzarioa kudeatzeko.

6. artikulua.– Eskualdaketak erasandako aurrekontu-kredituei buruz.

1.– EAEko 2012. ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren mendeko Itsasmendikoi Sozietate Publikoari dagozkion kredituak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera pasako dira. V. eranskinean kapituluka adierazi da aipatu kreditu horien zenbatekoa.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esku baliabideak uzteak sortu dituen gastuei aurre egiteko asmoz, aurrekontuetan egoki diren aldaketak egiteko baimena emango du Ekonomia eta Ogasun Sailak. Horrela, 2012ko abuztuaren 31ra arte Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen

Garapenerako Korporazioa Sozietate Anonimoak aurrekontutik betearazi ez duen zenbatekoaren besteko kreditua emango zaie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko kapituluei. Era berean, haren aurrekontua Dekretu honen edukira egokitzeko asmoz, mintzagai dugun sozietate publikoaren aurrekontuan beharrezkoak diren aldaketak egiteko baimena emango du Ekonomia eta Ogasun Sailak.

3.– Gerta daiteke aurrekontuetan bigarren paragrafoan aipatutako aldaketak egin ondoren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kreditu-behar berriak izatea. Horrelakoetan, suerta daitezkeen behar berriak egoki finantzatzeko asmoz, kreditu-transferentziak proposatuko dituzte Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak nahiz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bakoitzak bere aurrekontuetako kreditu-soberakinaren kargura.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ondasun higiezinetako obrak direla-eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzako aurrekontu-dotazioa.

Erakunde aseguratzaileak Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako eta hari emandako diruarekin oso-osorik ordainduko dira Itsasmendikoi Pasaia Bigarren Hezkuntzako Institutuaren zati bat eraitsi eta berreraikitzeko obrak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1.– Mendikoi, S.A. sozietate publikoari nekazaritza-prestakuntzako zerbitzuaren kudeaketa esleitzen dion uztailaren 24ko 154/1997 Dekretua indarrik gabe geratzen da.

2.– Itsasmendikoi, S.A. sozietate publikoari nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzua kudeatzeko ardura esleitzen dion azaroaren 28ko 249/2006 Dekretua indarrik gabe geratzen da.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean. Edonola ere, 2012ko irailaren 1etik aurrera izango dira eraginkor bai langileen atxikipena, bai eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeek ekonomia nahiz finantzak kudeatzeko izango duten autonomia-araubidea ere.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko abuztuaren 21ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA, ABUZTUAREN 21EKO 158/2012 DEKRETUARENA

LAN-LEGEPEKO IRAKASLEAK

Eskualdatutako plazak guztira: 77 plaza

ITSASMENDIKOI ARKAUTE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

| | Abizenak | Izena | NAN | Lanbide-kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Aizpuru Oiarbide | José Luis | 72431592-S | Ikastetxeko zuzendaria | Lan-kontratu finkoa |
| 2 | Lope Gorrotxategi | Gonzalo | 15942398-V | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 3 | Campo López de Luzuriaga | Javier | 15257930-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 4 | López de Larrinzar Antía | Jesús María | 16265656-X | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 5 | Aretxalde Seco | Nerea | 30556041-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 6 | Arregi Martínez | Asier | 18597882-J | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 7 | Maestre López | María Rosa | 17839884-A | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 8 | Izaga Kortabarria | Fernando | 16265990-E | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 9 | Otamendi Alkorta | Asier | 35771680-X | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 10 | Anda Arano | Arritokieta | 44131313-V | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 11 | Porras Gregorio | Esther | 14960528-V | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 12 | Aguirre Elvira | María Belén | 15368919-C | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 13 | Burguera Irigoyen | Oscar | 16285577-J | Praktiketako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 14 | Martinez de Ilarduia Arrieta | José Antonio | 18591921-D | Praktiketako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 15 | Uribe Padilla | Ana | 16269260-A | Praktiketako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| | Gorospe Bidaola | Amaia | 44141181-H | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |
| | Agirre Sexmilo | Leire | 44129341-T | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |
| | Imaz Martínez | Igor | 72472122-L | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |

ITSASMENDIKOI DERIO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

| | Abizenak | Izena | NAN | Lanbide-kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Arrieta Picó | Verónica | 14252426-Q | Ikastetxeko zuzendaria | Lan-kontratu finkoa |
| 2 | Alberdi Balzategi | Josu | 15376577-L | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 3 | Nieto Chamorro | Esperanza | 30571191-M | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 4 | Cabezas Terán | Inmaculada | 12754590-D | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 5 | Peña Zabala | Alberto | 14695678-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 6 | Vargas López | Julia | 14953456-Y | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 7 | Velasco Pérez | Aitor | 16051452-M | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 8 | Korpion Bravo | Kepa | 15396703-C | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 9 | Oyanarte Guallar | Merche | 30559906-J | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 10 | Llodio Zubiaur | Isusko | 14260080-B | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 11 | Astigarraga Lete | Ainhoa | 15385123-D | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 12 | Urrezti Elorriaga | Iker | 78904995-E | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 13 | Nieves Peña | Aitor | 14259338-M | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 14 | López de Munain Solar | Peru | 14573947-C | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 15 | Bajo Tabudua | Jesús | 30578632-V | Praktiketako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 16 | Esquizabel Echevarria | Hilario | 30663903-G | Praktiketako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 17 | Gaztañaga Basauri | Marian | 30554593-J | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| | | | | Teoriako irakaslea | |

ITSASMENDIKOI FRAISORO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

| | Abizenak | Izena | NAN | Kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Garai Iturri | Itxaso | 72478918-F | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 2 | Egaña Irusta | José María | 15347272-Q | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 3 | Muruamendiaraz Aramburu | Xabier | 15929483-M | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 4 | Gartzia Urbieta | Aitziber | 44139466-M | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 5 | Gaztesi Zabaleta | Itziar | 33427394-E | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 6 | Maiz Iturrioz | María José | 72438610-H | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 7 | Olano Imaz | Pedro María | 73219674-W | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |

| | Abizenak | Izena | NAN | Kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 8 | Beldarrain Bereziartua | Amaia | 72459004-B | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 9 | Ormazabal Ugalde | Jose Jabier | 72436544-E | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 10 | Olaitz Lekuona | Iñaki | 44145941-V | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 11 | Calvillo Tejedo | Jesús | 15977521-L | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 12 | Aguirre Arizala | Mikel | 15933598-A | Praktiketako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 13 | Eguzkiza Gutiérrez | Beatriz | 14254437-A | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| | Alzualde Zuloaga | Iban | 72484515-S | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |
| | Aranaga Zabaleta | Bakarne | 44153106-Y | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |
| | Otegi Arruti | Maixa | 72494414-R | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |
| | Ibañez de Garaio Jaca | María Pilar | 72724107-Q | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |
| | Rezola Mendikute | Arkaitz | 35769867-Z | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |
| | Santiago Uribetxeberria | Maite | 34109311-N | Teoriako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |

ITSASMENDIKOI PASAIA BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

| | Abizenak | Izena | NAN | Kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Gomez Ripalda | Juan Luis | 15919562-C | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 2 | Garciandia Tellería | Julián | 34086631-X | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 3 | Arrieta Irigoyen | Mikel | 35775572-S | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 4 | Ayesta Totorikaguena | Francisco. Javier | 30623694-E | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 5 | Urkia Barrenetxea | Iñaki | 15940632-E | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 6 | Álvarez de Arcaya Andueza | Álvaro | 15892033-E | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 7 | Granados Montero | José Luis | 15894900-Z | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 8 | Odriozola Braconier | Federico | 15894871-P | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 9 | Rivas Gorostiaga | Román | 16034830-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 10 | Sánchez Cacace | Francisco. Javier | 48959098-X | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 11 | Albizu Agirrezabalaga | Amaia | 44167165-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 12 | Ces Alcorta | Gema | 15924149-F | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 13 | Manzano Espel | Ana | 15950993-X | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 14 | Cabrero Aransay | Egoitz | 78882653-J | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |

| | Abizenak | Izena | NAN | Kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 15 | Goitia Ituarte | Jon | 78942944-K | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 16 | Muniozguren Agirre | Bitoren | 14569059-P | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 17 | Pérez Fernández | Isabel | 15934197-G | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 18 | Burgos Sánchez | Fermín | 15883321-G | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 19 | Garijo Urrestilla | Juan Ignacio | 15899621-C | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 20 | Lijo Montemuiño | Ramón | 15906191-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 21 | Pérez Pego | Manuel | 15964704-J | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| | De Miguel Jiménez | Pedro María | 15865987-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa Erretiro partzialduna |
| | Moreno Sanz | Jesús | 15873018-M | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa Erretiro partzialduna |

NAUTICO PESQUERA VICEALMIRANTE FONTÁN LOBE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

| | Abizenak | Izena | NAN | Kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Zabaleta Gaubeca | Jon Ander | 72244122-H | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 2 | Goitia Rentería | Jon | 24402179-F | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 3 | Fernandez González | Luis | 78868595-P | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 4 | Gutierrez Bustamante | Miren Edurne | 14592569-N | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 5 | | | | Praktiketako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 6 | San Miguel Rodríguez | Karmele | 16070803-J | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 7 | Zabalbeaskoa Garro | Jose | 14874396-C | Teoriako irakaslea | Aldi baterako lan-kontratua * |
| 8 | Barainka Marques | Víctor | 16033640-H | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 9 | Bilbao Izagirre | Juan Miguel | 14549882-J | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 10 | Basterra Vallejo | Modesto | 14936726-C | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| 11 | Muneta Larumbe | Carlos | 16030167-H | Teoriako irakaslea | Lan-kontratu finkoa |
| | Pérez Rodríguez | José María | 20193348-S | Praktiketako irakaslea | Bitarteko lan-kontratua |

* Martxan da lanpostua behin betikoz betetzeko hautatze-prozesua.

II. ERANSKINA, ABUZTUAREN 21EKO 158/2012 DEKRETUARENA

IRAKASLE EZ DIREN LAN-LEGEPEKO LANGILEAK

Eskualdatutako plazak guztira: 46 plaza

ITSASMENDIKOI ARKAUTE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

| | Abizenak | Izena | NAN | Lanbide-kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Ortíz de Zárate Sáenz | Raúl | 16295706-E | Praktiketako monitorea | Lan-kontratu finkoa |
| 2 | Lomba Caneda | José Carlos | 16249761-P | Ofizial espezialista | Lan-kontratu finkoa |
| 3 | Fernández de las Heras Beitia | Jesús | 16251243-H | Ofizial espezialista | Lan-kontratu finkoa |
| 4 | Uribarren Liebana | Leire | 72446748-Z | Administraria | Lan-kontratu finkoa |
| 5 | Alonso Iturralde | Ascensión | 16246522-N | Sukaldeko arduraduna | Lan-kontratu finkoa |
| 6 | Totorikoguena Rementería | Estibaliz | 30647527-G | Sukaldaria | Lan-kontratu finkoa |
| 7 | González Pérez | Isabel | 16261937-V | Sukaldeko laguntzailea / garbitzailea | Lan-kontratu finkoa |
| 8 | Chasco Arroniz | Casilda | 16302679-A | Sukaldeko laguntzailea / garbitzailea | Lan-kontratu finkoa |
| 9 | Saratxo Fernández de Gorostiza | Patricia | 72723055-E | Enplegurako prestakuntzako teknikari administraria | Lan-kontratu finkoa |
| | Mendizabal Izagirre | Elisabete | 72457236-Z | Administraria | Bitarteko lan-kontratua |
| | Iturralde Díaz de Tuesta | Iluminada | 16219900-R | Sukaldaria | Lan-kontratu finkoa Erretiro partzialduna |

ITSASMENDIKOI DERIO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

| | Abizenak | Izena | NAN | Lanbide-kategoria | Kontratua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Eskisabel Sampedro | Xabier | 35774595-G | Praktiketako monitorea | Lan-kontratu finkoa |
| 2 | Zubigarai Llaguno | Andoni | 30560422-T | Ofizial espezialista | Lan-kontratu finkoa |
| 3 | Olano Magunacelaya | Patxi Jabier | 78867563-B | Ofizial espezialista | Lan-kontratu finkoa |
| 4 | Martín Herrán | Silvia | 22745837-X | Administraria | Lan-kontratu finkoa |
| 5 | Hernani Salto | Virginia | 30595412-F | Administraria | Lan-kontratu finkoa |
| 6 | Beitia Gorostiaga | Máximo | 14924127-W | Sukaldeko arduraduna | Lan-kontratu finkoa |
| 7 | García Sánchez | Blanca | 30555660-E | Sukaldeko laguntzailea | Lan-kontratu finkoa |
| 8 | Martín Ramos | Estrella | 14584531-R | Sukaldeko laguntzailea | Lan-kontratu finkoa |
| 9 | Lope Ercoreca | Aitor | 11907623-V | Barnetegiko eta mantentze-lanetako arduraduna | Lan-kontratu finkoa |
